<u>Kanalak:</u> Kanalen bitartez lortzen dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko.

KANALEN artean, honakoak bereiz ditzakegu:

KOMUNIKAZIO KANALAK

- **Web-orrialdea** izango dugu, gure jarduerak eta abenturazko ekintzak zeintzuk izango diren azaltzeko, non egiten diren, zein ekipamendu eskaitzen dugun eta edozein bezero potentzial ezagutu beharko lukeena adierazteko. Gainera kalitatezko argazkiekin, gurekin kontaktuan jartzeko formularioa edo chat bat zuzenean kontsultak atenditzeko.

- **Sare-soziale**tan ere egongo gara. Facebooken eta Instagramen, gutxienez. Horren bidez, zer egiten ari garen erakutsi ahal dugu (beti ere irudia hartzeko eta zabaltzeko baimena errespetatuz) eta bezeroek etiketatzen eta beraien argazkiak igotzen badituzte ezagunago egingo gara.

- **E-mail/SMSmarketina** ere erabiliko dugu gure kontaktu-baseari deskontuak eta promozioak bidaltzeko beti ere Legea errespetatuz.

- **Posterrak**. Gure enpresa ezagutarazteko, posterrak jarriko ditugu Urdaibai osotik eta eskolatan, institutuetan eta herrietako lekurik garrantzitsuetan.

BANAKETA-KANALAK

zerbitzu bat ematen dugunez, ez daukagu banaketa kanalen beharrik.

SALMENTA-KANALAK
Gure kanpamentuan apuntatzeko gure web-orrialdearen bitartez egin dezakete, telefono batera deituta, Bermeo eta Mundakako udaletxeen turismo bulegoetan eta liburutegian.